

ELGOIBARKO IZARRAK 60 URTE BETEKO DITU (1963-2023)

ETA ZER?

zer egin dugu?

zer lortu dugu?

zer ez dugu lortu?

Eta, batez ere,

zer lortu nahi dugu hurrengo 10-15 urteetan?

Zer eta zelan egingo dugu?

Aurkibidea

1. Sarrera moduan
2. Helburuak
3. Zer egin dugu?
4. Zer lortu dugu?
5. Zer ez dugu lortu?
6. Laburpen modura
7. Elgoibarko Izarraren gainean esandakoak.
8. Azken komentarioak.

1. SARRERA MODUAN

Derioko Tximintx euskara elkarteko kidea den Txerra Rodriguezen (Derio, 1977) *30 urte mihigintzan, euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina (1987-2017)* tesi-lanak animatu gaitu, neurria handi batean, dokumentu hau idaztera. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina aztertu du deriotarrak bere tesian, eta, besteak beste, euskara elkarten mugimenduak egin eta lortu duena dator bertan.

Euskara elkarteak “egiteko artefaktoak” direla dio Txerrak bere lanean, baina, noizean behin bada ere, ona da egiten ari garenaren gaineko gogoeta egitea. Eta ona da, baita ere, egiten dihardugunak guk nahi ditugun emaitzak ematen dituen ala ez ikustea. Eta, nahi bada, egiten diharduguna egitea dagokiguna baden ere azter dezakegu bide batez.

Gainera, Elgoibarko Izarrak 60 urte beteko ditu 2023ko martxoan, eta mugarri polita begitandu zaigu horrelako lan bat egiteko. Egin duguna erreparatzeko. Baloratzeko. Eztabaidatzeko. Eta, batez ere, etorkizunari begiratu eta erabakiak hartzeko.

Bi dira, batez ere, dokumentu honen helburuak:

1. Egin eta lortu dugunaren kontzientzia izatea (eta lortu ez dugunaz jabetzea).
2. Hurrengo urteetan egin behar dugunaren gaineko gogoeta egitea.

Lan honetan Elgoibarko Izarraren azken 30 urteetan (1990-2020) zentratu gara, baina horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, lehen etapa (1963-1990) ahaztuta daukagunik. Lehen etapa oso aintzat hartzen dugulako idatzi genituen, besteak beste, bi liburu (1). Bi liburu horietan betiko jasota laga genuen lehen etapan egindako lana.

(1) *Izarren Hautsa 40 urtean* (2005) eta *Euskaldunak Elgoibarren* (2014).

2. HELBURUAK

Hirugarren atalean aztertuko dugu Elgoibarko Izarrak zer egin duen azken 30 urteetan. Eta egingo dugu, baita ere, lorpenen errepasoa, egiteke edo lortu gabe geratu dena ahaztu gabe. Baina, aurretik, bigarren etapari ekin genionean (1990) elkartearen helburuak zein ziren errepasatuko dugu atal honetan, motz-motz bada ere:

- **Elkartea ez desegitea:** Elgoibarko Izarra ez desagertzea izan zen lehen helburua. 80ko hamarkadan desagertzeaz egin zen elkartea, eta lehen helburua elkarteari bizirik eustea izan zen.
- **Euskara elkarte mugimenduarekin bat egitea:** 1990. urtera arte kultur elkartea izan zen Elgoibarko Izarra, baina bigarren fasean euskara elkarte bihurtu zen. 1983an sortu zen lehen euskara elkartea Arrasaten, AED elkartea, eta haren ondoren sortu ziren beste batzuk Eibarren, Bergaran, Durangon, Tolosan ... Euskara elkarte mugimendua handituz eta zabalduz joan zen poliki-poliki, eta Elgoibarko Izarrak ere mugimendu horretako parte izan nahi zuela erabaki zuen.
- **Hizkuntza-komunitatea trinkotzea:** Elgoibarren euskaraz bizi nahi eta horren alde egiteko prest geunden herritarrak elkartearen bueltan biltzea izan zen beste helburu bat. Elkartea hutsik zegoen, oso jende gutxirekin eta aktibitate txikiarekin, eta elkartearen bueltan jendea biltzea zen helburua. Jendea bildu eta dinamika berriari ekin.
- **Funtzioak irabaztea:** euskararentzat funtzioak irabaztea izan zen beste helburuetako bat. Funtzioak diogunean, besteak beste, honako funtzio hauetan eragiten saiatu gara: identitatean, familietan, herri mailako esparruetan (elkartek eta erakundeak, merkataritza eta ostalaritza, tokiko hedabideak, ume eta nerabeen aisialdia ...) eta, azkenik, funtzio nazionalan (2).
- **Eragitea:** egitea izan da gure egiteko nagusia, baina eragitea ere izan da gure helburuetako bat. Guk egin besteengan eragiteko.
- ...

Euskara elkartearen helburu eta egiteko nagusia, sortu zirenetik, herrietan euskararen erabilera areagotzea izan da. Erabileraren aldeko apustua egitea euskara elkarteena izan da (aurretik ezagutzari ematen zitzaion garrantzia handiagoa), eta Elgoibarko Izarrak ere bat egin zuen zeregin edo helburu horrekin. Horretan saiatu da, batez ere, bigarren etapan.

Hurrengo atalean ikusiko dugun moduan, gure proiektu, programa edota ekintza asko euskararen erabilera areagotzeko izan dira, baina ez dugu horretarako bakarrik jardun. Beste helburu batzuen mesedetan ere egin eta eragin dugu.

(2) Txepetxek zazpi funtzio bereiztu zituen *Un futuro pasa nuestro pasado* liburuan: identitate funtzioa, funtzio familiarra, funtzio profesionala, funtzio lokala, funtzio nazionala, zibilizazio funtzioa eta, azkenik, funtzio internazionala.

3. ZER EGIN DUGU?

Idatzi dugu sarrerako testuan euskara elkarteak “egiteko artefaktoak” direla. Egiten jardun dutela, batez ere, sortu zirenetik. Jarraian ikusiko dugun moduan, asko da Elgoibarko Izarrak ere azken 30 urteetan egin duena. Atal honetan elkarteak bigarren etapan egin duen garrantzitsuena jasotzen ahalegindu gara (hainbat ekintza ahaztu dugula argi izanda), eta egin dugun gauza bakoitza zein helbururen mesedetan egin dugun ere zehaztuko dugu. Ekintza askoren atzean helburu bat baino gehiago dago, baina garrantzitsuena zein den azpimarratzen saiatu gara.

Ez gara egin dugun ekimen bakoitza azaltzen eta baloratzen hasiko. Horrek asko luzatuko luke lan hau, eta ez da hori helburua. Aitatu baino ez ditugu egingo, egin dugunaren dimentsioa izateko.

Atzera begira aurrera egiteko balorazio-lanean (2013) proiektu bakoitzak emandakoa ere baloratu genuen, baten batek irakurri nahiko balu.

HIZKUNTZA-KOMUNITATEA trinkotzeko (TALDE IZAERA sendotzeko):

Txerrak bere lanean dio ez dagoela batere argi zer dagoen helburu horren atzean. Argitu beharra dagoela zer den komunitatea. Hobeto zehaztu behar dugula zer den trinkotzea. Zalantzak zalantza, jarraian datozen ekintzak jendea elkartearen eta bere proiektuen bueltan biltzeko ekintzak izan dira. Talde izaera edo pertenezia lantzeko ekimenak. Gu izateko. Gero eta gehiago izateko. Horregatik ekarri ditugu hona:

- *Ez dok amaitu!* jaialdia (1992).
- Lehen nukleoa osatzeko jende-bilketa, 25-30 lagunekin (1992).
- Elkartearen gaineko ikerketa soziologikoa (1994).
- BARREN sariak (1994-95).
- kirolBARREN (1994-95).
- Bazkide berriak lortzeko kanpainak (1993, 2005, 2008, 2017).
- *Dudaripe!* komikia (1996).
- Elkartearen Eremu Sinbolikoaren batzarrak.
- Elgoibarko Izarraren 45. urteurrena ospatzeko programa (2008).
- *Ni ere banaiz BARREN!* ekimena (2010).
- *Astokaka!* ekimena, BARRENi laguntzeko (2011).
- Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzeko programa (2013).
- Elgoibarko Izarraren aldeko tonbola (2013an hasita).

- Proiektuen urteurren jaiak:
 - BARRENen 10. urteurrena (2002).
 - BARRENen 25. urteurrena (2017).
 - Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena (2013).
 - txutxiamaikaren 10. urteurrena (2014).

Euskararen ERABILERA areagotzeko:

Esan dugu euskararen erabilera areagotzea izan dela elkartearen helbururik nagusiena. Horretara bideratu dugula, batez ere, gure egitekoa. Segidan datozenak erabilera areagotzeko espreski prestatutako programa, proiektu eta ekintzak dira.

- **BARREN komunikazioak (1992):**
 - Astekaria (1992).
 - elgoiBARREN.net (2006).
 - Sare sozialak (2009).
- **Atxutxiamaiak aisialdi taldea (1995):**
 - Olentzero eta Mari Domingi (1991n hasita).
 - Begirale eta zuzendari ikastaroak (1994).
 - Atxutxiamaikaren gaineko lan teorikoa (Maialen Arnedo-2014).
 - GAZ-T proiektua (2001-2007).
 - *Kuadrillategi* programa(2006-2010).
 - Berbazulo programa (2003an hasita).
 - Kiribilka familia-programa (2004an hasita).
 - Daixola programa (2014-2017).
 - Aldenik alden programa (2018an hasita).
 - Euskara errefortzuak (2003an hasita).
 - Oporretako aisia-programak: udaran, neguan ... (1995ean hasita).
 - Jostailu erakusketa (2016an hasita).
 - Atxutxikaraokea (2008an hasita).
 - ...
- ***Gurean Bai* hitzarmenak:**
 - *Gurean Bai*-elkarteak (1996-2003).
 - *Gurean Bai*-merkataritza (2002).
 - *Gurean Bai*-ostalaritza (2007).
- **Arigera proiektua (2000-2003):**
 - Tertuliak programa (2001ean hasita)
- **Euskaraldia ariketa soziala (2018-2020).**

MOTIBAZIOA lantzeko:

Euskaraz jakitea ezinbestekoa da euskaraz egiteko, baina ez da nahikoa. Zenbat jende dago jakin bai baina erabiltzen ez duena. Horregatik da garrantzitsua euskararen erabilera ezezik euskararen aldeko motibazioa edo kontzientzia ere lantzea. Euskaraz dakienari euskaraz egiteko arrazoiak ematea. Horregatik egin ditugu, besteak beste, segidan datozen ekintzak. Gure ustez, kultura da euskaltasuna landu edota areagotzeko gasolina edo erregaia, eta horra bideratu ditugu gure ahalegin handienak.

- Kultur programak eta ekintzak:
 - Ikastaroak: sukaldaritza bejetarianoa, grafología ... (1992-1997).
 - Urruzuno literatur taldea (1998-2001).
 - *Laiotz* literatur aldizkaria (1993-2004).
 - *Hamaika Litera* literatur aldizkaria (1998-2001).
 - Elgoibarko Izarra Idazlehiaketak (1999-2004).
 - Santa Ageda eskea (1994an hasita).
 - Sargoateko erromeria (1993-97).
 - Ekigain! ekimena (2016-2018).
 - Kafe Usainean (1997-2001).
 - Bertsolaritza:
 - Eguberrietako bertso-jaialdia (1981ean hasita).
 - Bertso eskola (1981-2016).
 - Etxegiña bertso-paper lehiaketa (1982-1992).
 - *Elgoibarko berbetia* ikerketa-lana (2004).
 - *Kulturekintza* programa (2016): historiari lotutakoak (2019), Biba Hasier! (2018an hasita) ...
- *Euskaldunon hizkuntza-eskubideak* kanpaina (1998).
- TOLETXE kafe antzokia (2001-2002).
- *Elgoibar Koloretan* mahai-jokoa (2008).
- *Euskarak 365 Egun* ekimena (2013-2017).
- ...

JAKINTZA eta PENTSAMENDUA areagotzeko:

Egitea ondo dago, baina jakin egin behar dugu zergatik eta zertarako egiten dugun. Arrasaten sortu zuten aldizkari batek zioen moduan, "jantzi beharra daukagu biziko bagara". Horregatik jardun dugu guk ere jakintza eta formazioa (informazioa) prestatu eta ematen, norbanako eta talde moduan ahalduntzeko ezinbestekoa delakoan.

- Soziolinguistika ikastaroa, Adorez eta Atseginez Mintegiaren eskutik (1992).
- 10 orduko soziolinguistika ikastaroa, 50 lagunek (1993).
- *Euskara Elgoibarren* ikerketa-lana, SIADECOn eskutik (1993).
- Soziolinguistika hitzaldiak institutuetan (1998-2010).
- *Elgoibarko berbetia* ikerketa-lana eta ikastaroa (2003-2007).
- *Euskal kulturagintzaren transmisioa* (2008). 20 orduko ikastaroa, 40 lagunek.

- *Euskara ala Ezkara* zikloa/jardunaldiak (2008an hasita).
- *Kulturekintza* programako hitzaldiak (2016an hasita).

Gure egitekoaren BALORAZIO-lanak:

Egiten pasa dugu denborarik gehiena, baina pentsatzeko denbora ere hartu dugu. Zertan dihardugun pentsatzeko. Ondo dihardugun baloratzeko. Okerrak zuzentzen saiatzeko. Aurrerako bideak markatzeko. Hona hemen egiteko horri lotutako lan batzuk:

- *Atzera begira aurrera egiteko* balorazio-lana (1996).
- BARRENen gaineko ikerketa lana, Andres Gostin (2005).
- BARRENen gaineko ikerketa soziologikoa, Aztiker (2009).
- *Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte 1990-2010. Atzera begira aurrera egiteko. 20 urteetako balorazio-lana* (2010-13).

Gure IDENTITATEA lantzeko:

Egitea ondo dago, baina izatea ere beharrekoa da. Zer garen pentsatu eta idazten ere saiatu gara. Gure pentsamendua jasotzen. Gure diskurtsoa lantzen. Eta zeintzuk izan ginen eta garen ere jasotzen saiatu gara. Eta egiten duguna garenez, egin duguna ere jasota geratu da.

- *Zer da Elgoibarko Izarra?* dokumentua (1997).
- *Elgoibarko Izarren helburu eta egitekoak* (2010).
- BARREN astekariaren Estilo Liburua (2010).
- *Izarren hautsa* berripapera bazkideentzat (1993).
- *Izarren Hautsa 40 urtean* liburua (2005).
- *Euskaldunak Elgoibarren* liburua (2014).

GURE AURREKOAK ez ahazteko:

Euskararen eta euskaldunon etorkizuna hobetzeko ahaleaginean dihardugu, Elgoibar herri euskaldunagoa izateko ahaleaginean, baina ezin dugu ahaztu iraganetik gatzela. Eta ezin dugu ahaztu gure aurretik beste batzuek ere egin zutela. Izan zirela. Haiei esker gaudela gauden tokian. Horregatik erreparatu diegu gure aurrekoei. Horregatik goratu dugu haiek egindakoa. Merezi zutelako. Zor diegulako.

- *Elkartea* sortu zutenei omenaldia (1992).
- Pedro Migel Urruzunoren oroimenez (1998).
- *Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren* liburuxka (2001).
- Gau-eskolaren 50. urteurrena, Pako Juaristi sortzailearen oroimenez (2006).
- Gotzon Garateren omenez eta oroimenez (2008an hasita).
- *Biba Hasier!* ekimena (2018an hasita).

NAZIO mailako ikuspegia ez galtzeko:

Elgoibarkoak gara, Elgoibarren daude, batez ere, gure egitekoak eta eragin-eremuak, baina ez dugu nazio ikuspegia galdu nahi.

- *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko herri-ekimena (1990).
- ARGIA aldizkariaren aldeko ekintzak (1992-94).
- *Euskaldunon Egunkaria* ixtearen kontrako mobilizazioak (2003).
- *BERRIA* egunkaria sortzeko herri-ekimena (2003).
- Ikastolen aldeko jaietara joateko autobusak (1990ean hasita).
- Errigora ekimenaren aldeko sustapena (2015ean hasita).
- Zuberoako ikastolen aldeko otarra-salmenta (2010ean hasita).
- KORRIKA ekimenaren alde (1992an hasita).
- Euskal Eskola Publikoaren aldeko jairako autobusa (2015).
- ...

Bestalde, Euskatzaleon Topagunean (federazioan) ere oso era aktiboan parte hartu du Elgoibarko Izarrak euskara elkartearen mugimenduan sartu zenetik: Topaguneko Zuzendaritza Batzordean egon gara urte askoan, Topaguneko hainbat lan-batzordetan parte hartzen dugu, eta gure esku dagoen guztia egiten dugu mugimenduaren mesedetan.

Hor, Elgoibarko Izarrak azken 30 urteetan egin duen garrantzitsuenaren errepassoa. Ekimen batzuk bizirik diraute oraindik. Beste batzuk, berriz, bidean geratu dira arrazoiak arrazoi. Hori da egin duguna. Edo egin dugun garrantzitsuena behintzat. Egiten duguna bagara, hori da garena. Hori da Elgoibarko Izarra. Edo hori ere bada behintzat.

Non eragin dugu?

Aurretik aitatu dugun moduan, gure jardunean bada beste aditz bat dezentetan deklinatzen duguna: *eragin*. Non eragin dugu? Edo, non saiatu gara eragiten? Egiten dugunean, normalean, eragin ere egiten dugu, baina atal honetan, eragiteko bereziki prestatutako ekintzak eta ekimenak errepassatuko ditugu:

- *Gurean Bai* hitzarmenak:
 - Gurean Bai-elkarteak (1996-2003).
 - Gurean Bai-merkataritza (2002).
 - Gurean bai-ostalaritza (2007).
- *Alkate eta zinegotzien ejenplua nahi dugu!* kanpaina (1994).
- Elgoibarren D eredia ezartzeko kanpainak (1993-94-95).
- EUSKARALDIA: norbanakoengan, administrazioan, gizarte-mugimenduetan, merkataritza-ostalaritzan, enpresa-industria-munduan ... eragiteko ariketa soziala (2018 / 2020).

Egiten eragiten baino denbora gehiago pasa dugu, baina Gurean Bai hitzarmenarekin lan handia eta ona egin genuen, eta EUSKARALDIA ariketa soziala ere hor daukagu bi ediziorekin, dezenteko eraginarekin.

Zerbitzuak:

30 urteotan egin dugunaren errebasoarekin amaitzeko, zerbitzuen atalari erreparatuko diogu. Zerbitzuena ez da sistematizatuta izan dugun jardunbidea, baina lan dezente egin dugu honi eta hari zerbitzuak eskaintzen. Ikus ditzagun horietako batzuk, proiektuak aintzat hartuta:

- Atxutxiamaikatik:
 - Biluzik sexologia zerbitzua (2002-2005).
 - Gazte Informazio Gunea (2002-2005).
 - DEBEMEN elkarteari, hil amaierako ferietan tailerrak kudeatzeko.
 - HERRI ESKOLARI, Eskola Publikoaren Jaia antolatzen laguntzeko eta Ate Irekiak ekintzan tailerrak antolatzeko.
 - ELGOIBAR ikastolari, jangelako zaintza-zerbitzua.
 - TXANKAKUA elkarteari, hezitzaile-zerbitzua.
 - *Zergatik ez?* motibazio-saioak nerabeentzat Elgoibarren, Azkoitian, Eibarren eta Ermuan.
 - Ezkontzetarako hezitzaileak.
 - Umeen zaintza-zerbitzuak: Udalari ...
 - UDALARI: inauterietan arratsaldeko eta gaueko jaien antolakuntza-zerbitzua.
 - MENDAROKO eta DEBAKO udalei, udalekuen antolaketa-zerbitzua.
 - OIN-ALAI ekimenari, azken eguneko agur-jaia antolatzeko.
 - DEBAKO UDALARI, hezitzaileen formazio-zerbitzua.
 - TOPAGUNEARI, formazio-saioen prestakuntza-lanak.
 - ARNO GURASO elkarteari, hezitzaile-zerbitzua.
 - Makina Erremintaren Museoari, tailer-zerbitzua.
 - ...
- Idazkaritzatik:
 - ELGOIBAR ikastolari, *50 urte gelak bizipenez betetzen* liburua, ikastolaren 50. urteurrenean.
 - ALCORTA enpresari, *100 urteko lana* liburua, enpresaren 100. urteurrenean.
 - MORKAIKO mendizale elkarteari, *Eup, Morkaiko!* bideoa, elkartearen 75. urteurrenean.
- BARRENetik:
 - Maketazio- eta diseinu-lanak EH-Bilduri, Mendaroko Udalari, Elgoibarko Udalari, Alcorta enpresari ...
 - Buzoneoak eta enkarteak, alderdi politikoei, Udalari, Foru Aldundiari, enpresaren bati ...
- Bestelakoak:
 - Itzulpenak

Aitatu ditugun proiektu, programa eta ekintza horiekin hasi aurretik, baina, Elgoibarko Izarra *berria* prestatzeko lanetan jardun genuen 1990ean eta 1991n. Besteak beste, egitura eta antolamendu berria prestatu genituen, eta aurkezpen sektorialak ere egin genituen herrian, Elgoibarko Izarrak etapa berrirako zituen asmoak azalduz. Gero, *Guk merezi duela uste dugu. Eta zuk?* bazkide-kanpaina ere jarri genuen martxan jendea erakartzeko. Une hartan zeuden 800 bazkideen artetik 550ek erabaki zuten elkarteko bazkide izan nahi zutela, eta bazkide ez zen jende dezente ere eman zuen izena elkarteko kide izateko.

Marko teoriko bati kasu eginda jardun dugu ala aldameneko herrikoek ere egiten zutelako egin dugu egin duguna?

Txerrak bere tesi-lanean bota duen galderetako bat da. Elgoibarri dagokionez, bigarren etapari ekin genionean, Txepetxen *Un futuro para nuestro pasado* liburua izan genuen bidelagun. Izan ere, Arrasateko AED elkartearen praktikak eta Txepetxen *Un futuro para nuestro pasado* (3) lanak bat egin zutenean sortu ziren euskara elkarteak han eta hemen, eta liburu hori izan zen, neurri handi batean, Elgoibarko Izarraren norabidea ere markatu zuena.

Baina ez zen liburu hori gure iparrorratz bakarra izan. Elgoibarren izan zen beste lan garrantzitsu bat gure elkartearen jarduna goitik behera baldintzatu zuena: SIADECOK Elgoibarren euskarak bizi zuen egoeraren gainean 1993an egin zuen ikerketa-lanari buruz ari naiz. Udalak eskatuta eta ordainduta egin zen lan hori, eta Atxutxiamaika aisialdi proiektua eta Gurean Bai hitzarmenak, adibidez, ikerketa-lan horrek proposatuta jarri genituen martxan.

Gero, guk geuk eta geuretik sortutako ekimen asko dauzkagu: Arigera programa, motibazioari lotutako ekintza gehienak (Toletxe taberna eta *Euskarak 365 Egun* ekimena kenduta), jakintzari eta identitateari lotutakoak, balorazio-lanak eta gure aurrekoei eskainitakoak ere guretik sortutakoak dira.

Beraz, aldameneko herrikoek egiten zutelako (eta ekimen arrakastatsuak zirelako) martxan jarri genuen proiektu bakarria BARREN astekaria (elgoiBARREN izenarekin) izan zen.

Laburbilduz, Txepetxen teoriarekin batera SIADECOK egindako ikerketa-lanak asko markatu zuen gure jardunbidea. Guretik ere asko jarri dugu, eta gure proiektu garrantzitsuenetakoa (BARREN komunikazioak) aldameneko herrietan egiten zutenari begira sortu genuen.

(3) Txepetxek esan zigun edozein normalizazio prozesuri hasiera emateko izateko eta egiteko borondatea behar dela. Euskaldun osoak edo Eremu Sinbolikoa biltzea da bigarren urratsa. Erantzukizuna gurea dela, beste inork egiteko zain egon gabe, eta hizkuntza komunitatea trinkotzen joan behar dugula poliki-poliki. Eta hizkuntza-funtzioak irabazten. Urrats horiek aintzat hartuta jardun dugu, hiru hizkuntza-faktoreak kontuan hartuta: erabilera, motibazioa eta ezagutza. Eta, batez ere, axioma bat izan dugu gure ibilbide osoan: *“euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa da”*. Hori sinestuta hasi ginen eta horri eusten diogu.

4. ZER LORTU DUGU?

Ikusi dugu Elgoibarko Izarrak azken 30 urteetan egin duen garrantzitsuena. Ikusi dugu zer egin duen eta non eragiten saiatu den. Baina, zer lortu da elkarteak egin eta eragin duenarekin? Hona hemen identifikatu ditugun lorpenik garrantzitsuenak:

- 1. Elgoibarko Izarra ez desegitea:** ahaztuta daukagun edo behar beste baloratzen ez den lorpen bat da, baina hori gabe ez litzateke beste ezer etorriko. Elkartea desagertzeaz egon zen 80ko hamarkadan, eta, orduan ere, bazkide gutxi batzuen izateko eta egiteko borondateak galarazi zuen elkartearen amaiera.
- 2. Euskalgintzan jarduteko diskurtso eta estilo berria ekartzea: elkarlana, adostasuna, aliantzak, euskara erdigunean jartzea, teoriaren aterpea, profesionaltasuna ...** 80ko hamarkadako euskalgintzaren ezaugarrietako bat izan zen polarizazioa, enfrentamendua eta adostasun eza. Euskara elkarteek haize eta arnas berria ekarri zioten euskalgintzari, eta Elgoibarren ere hala izan zen. Elkarlanaren aldeko apustua egin genuen; euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa dela onartuta ekin genion; euskara erdigunean jarri eta horretan bakarrik jardutea adostu genuen; marko teoriko baten aterpean bildu ginen; jardun profesionala ere behar genuela erabaki genuen ... Hori dena oso normala begitantzen zaigu gaur egungo begiekin begiratuta, baina 1990ean oso bestelakoak ziren gauzak. Hori ere lortu genuen. Udalaren babesa eta konfiantza, esaterako, ezinbestekoak izan dira egin dugun ibilbidea egiteko.
- 3. Euskalgintzara aniztasuna ekartzea: ideologia, generoa, adina ...** Diskurtso eta estilo berri horrek, besteak beste, ordura arte euskalgintzan jardun ez zuen jendea erakarri zuen. Ilusio berezia piztu zen jendearen artean. Euskararen alde egiteko gogo eta energia berria. Horregatik bildu da Elgoibarko Izarraren bueltan 30 urteotan ideologia eta pentsaera ezberdineko jendea; gazte eta heldu; emakumezko eta gizonezko. Hala ere, badakigu ez garela Elgoibarko jendarte osora heltzen. Atxutxiamaikarekin edota BARRENEkin asko zabaltzen da elkartearen eragin-eremua, eta Euskaraldia ariketarekin ere asko handitu da gure eragin-eremua, baina bestelako ekimenetan antzerako jendea hurbiltzen edo mugitzen dela baloratzen dugu.
- 4. Erabileraren garrantzia azpimarratzea:** erabilera, ezagutza eta motibazioa izan ziren Txepetxek bere lanean markatu zituen hiru hizkuntza-faktoreak. Euskagintza, euskara elkarteak sortu arte, hizkuntzaren ezagutzan zentratu zen, batez ere (gau-eskolak, ikastolak, euskaltegiak ...). Jendeak euskara ikastea edota alfabetatzea zen garai hartako egiteko nagusia. Euskara elkarteen mugimendua izan zen fokua erabileraren gainean jarri zuena. Euskara elkarteak hasi ziren erabilera-programak prestatu eta martxan jartzen, eta Elgoibarko Izarrak ere hala egin zuen, hurrengo lorpenean ikusiko dugun moduan.

5. **Hainbat funtziotan eragitea:** berrikuntza sozial moduan izendatu du lorpen hau Txerrak bere tesi-lanean. BARREN, Atxutxiamaika eta Gurean Bai hitzarmenak Elgoibarren euskararen erabilera areagotzeko prestatutako berrikuntza sozialak dira. Ordura arte sekula urratu gabeko jardunbideak, guk dakigula. Gaur egun ohituta gaude egunero eta astero Elgoibarko berri euskaraz jasotzen; ezin dugu umeen eta nerabeen aisialdia euskara ez den beste hizkuntza batean irudikatu, baina hori ez da beti hala izan. Gurean Bai hitzarmenarekin ere, euskararen erabilera areagotu genuen herriko hainbat sektoretan (elkarte eta entitateetan, merkataritzan eta ostalaritzan), eta entitate batzuekin lan polita egin genuen. Funtzioen berreskurapena da Txepetxek proposatzen zuen urratsetako bat, eta, aurrerago aitatu dugun moduan, lehen bost funtzioetan eragiten saiatu gara.
6. **Jendearen jakintzan eta ahalduentzian eragitea:** ez dakigu zer neurritan lortu dugun, baina saiatu egin gara behintzat jendearen jakintza-maila areagotzen. Hasieratik begitandu zitzaigun garrantzitsua jendeari informazioa eta formazioa eskaintzea, eta egin dugunaren errebasoan ikus daiteke dezenteko lana egin dugula atal honetan. *Euskara ala Ezkara* zikloa da, beharbada, ekintzarik esanguratsuena (2008an hasita daukagu martxan), baina bestelakoak ere antolatu ditugu norbanako eta talde moduan ahalduentzako beharrezkoak diren formazio-ekintzak.
7. **Gure aurrekoek egindako lana jaso, jendarteratu eta goratzea:** gure aurretik beste batzuk izan zirelako gara gu gaur eta hemen. Hori esatea erraza da, baina esatearekin batera esanahiz bete behar da esaten duguna. Horretan saiatu gara Elgoibarko Izarran. Gure aurrekoak ez ahazten. Gure aurrekoen izena eta izanak bildu eta jendarteratzen. Gure aurrekoei eskerrak ematen.
8. **Euskalgintzako erreferentia izatea:** Elgoibarko euskalgintzako erreferentia da Elgoibarko Izarra. Hala esan eta aitortu dute Liburu Zurian (4) elkarriketatutako euskalgintzako eta kulturagintzako eragileek. Ez gara elkarte bat gehiago herrian. Ez behintzat herriko euskalgintzako elkarte, erakunde eta eragileentzat. Elgoibarren, gure inguruan eta, neurri batean, baita Euskal Herrian ere, Elgoibarko Izarrak bere tokia irabazi du (euskara elkarte mugimenduan bai behintzat).
(4) Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturagintzaren egoeraren DIAGNOSIA Liburu Zuria. 2020. urtea.
9. **Autonomia izan eta dezenteko garapena izatea:** aurretik esan dugun moduan, elkarte desagertzear zegoela ekin zion Elgoibarko Izarrak bigarren etapari. 30 urtean asko hazi da elkarte, asko egin du (aurretik ikusi dugun moduan) eta jardunbide berri asko zabaldu ditu. Horrelakoetan hastea edo ekitea izaten da errazena, baina, gure kasuan, hasi eta hazi egin gara, eta hori ez da denean hala izan (euskara elkarte asko desegin da 30 urteotan).
10. **Tokioa izan arren, nazio ikuspegia ere izatea:** Elgoibarko Izarra, izenean bertan datorren moduan, Elgoibarkoa da. Tokiko elkarte bat da eta gure herrian zentratzen da, batez ere. Baina horrek ez du esan nahi gure begiek ez dutela Elgoibartik haratago begiratzen edota ikusten. Euskal Herriko mugimendu bateko parte gara, eta mugimendu horren alde ez ezik, nazio mailako beste hamaika jardueretan ere parte hartzen dugu, gure egitekoen errebasoan ikusi dugun moduan.

Esan dugu behin baino gehiagotan euskara elkarteetan eta Elgoibarko Izarraren helburu garrantzitsuenetakoa Elgoibarren euskararen erabilera areagotzea izan dela. Egin dugunaren zati handi bat horretarako izan dela. Beraz, geure buruari galdera bat egin behar diogu, zintzo erantzuteko konpromisoarekin:

Azken 30 urteetan egin dugunak balio izan al du euskararen erabilerak gora egiteko Elgoibarren?

Erantzuna baiezkkoa da, zalantzarik gabe. Euskararen kale-erabilerari erreparatzen badiogu, adibidez, gora egin duela ikusiko dugu. Guk nahi baino gutxiago, baina gora egin du. Hori ez da izan elkartearen lanarengatik bakarrik, baina guk ere gure aletxoak jarri dugu. 1991n (guk bigarren etapari ekin genion urtean) % 25,2koa zen euskararen kale-erabilera Elgoibarren. 2017an, berriz, elgoibartarren % 36k egiten zuen euskaraz kale giroan (ordukoa da azken kale-neurketa). Hori bai, kontuan hartu behar dugu 2010ean jo zuela goia euskararen kale-erabilerak (% 41.58) eta ordutik ez duela hobera egin (behera, apur bat bada ere). Beraz, gora egin du 30 urtean, baina azken 10 urteetan ez du hobera egin. Kezkatzeko datua, inondik inora ere!

Kale erabileran ez ezik, gainontzean ere euskararen erabilerak gora egin duela irizten diogu (udal administrazioan, hezkuntzan, elkarte eta gizarte-mugimenduetan, merkataritzan eta ostalaritzan, industrian eta enpresa munduan). Ez daukagu hori baieztatzeko daturik, baina inpresioak jasotzen jardun dugu han eta hemen. 24 entitateetan galdetu dugu duela 20 urte baino euskara gehiago ala gutxiago egiten den haien entitateetan: 13k euskara gehiago egiten dutela esan digute, eta hirutan askoz gehiago; zazpi izan dira duela 20 urte eta gaur egun antzera egiten dutela esan digutenak, eta, azkenik, entitate batean gutxiago egiten dutela aitortu digute. Inpresioak edo sententzioak baino ez dira, baina neurketa zientifikorik egiten ez den bitartean, balekoak direla begitantzen zaizkigu. Hala ere, eta hau ere aitortu behar dugu, jende askoren artean badago Elgoibarko kaleetan gero eta euskara gutxiago egiten eta entzuten den sententzia. Oso aintzat hartzeko sententzioak. Behar bada, ez legoke gaizki 1990ean egin zen bezala, orain ere Elgoibarren euskarak bizi duen egoeraren analisi serio eta sakona egitea. Erabileraren gainean dauzkagun zalantzak argitzen lagunduko liguke. Egoera erreala zein den jakiteko balioko luke.

LABURBILDUZ: izugarri egin, dezente eragin eta asko lortu dugu. Gainera, egin duguna, oro har, ondo egin dugula uste dugu. Elgoibar duela 30 urte baino herri euskaldunagoa da, baina ez dakigu behar besteko eragina izan duen gure lanak; ez dakigu egin dugun ahaleginak behar besteko emaitzarik eman duen. Galdera hau ere *Sakonago aztertze*ko atalera eraman dugu.

Hori bai, gauza bat argi daukagu: 30 urtean (edo 60 urtean) egin duguna egin ez bagenu, gauden baino dezente okerrago egongo ginatke Elgoibarren. Bazkide batek behin esan zuen moduan, "Elgoibar bestelako herria litzateke Elgoibarko Izarra 1963an sortu izan ez balitz".

5. ZER EZ DUGU LORTU?

Asko egin dugu, asko da lortu duguna, baina horrek ez du esan nahi dena ondo egin dugunik. Ez ditugu helburu guztiak bete. Horren gaineko gogoeta egingo dugu atal honetan.

1. **Lan profesionala eta jardun militantea orekatzea:** gizarte mugimendua da gurea, eta gizarte mugimendu batean jendea da garrantzitsuena. Jendearen konpromisoa eta parte-hartzea. Gurea jardun profesionala eta militantea uztartu nahi dituen gizarte mugimendua da. Hala erabaki genuen 1990ean bigarren etapari ekin genionean, eta hala berretsi genuen 2013ko gogoeta-prozesuan. Bigarren etapako lehen urteetan ondo baino hobeto uztartu genituen jardun profesionala eta militantea. Profesional bakarrarekin ekin genion eta militante asko bildu ziren elkartearen bueltan. Gerora, baina, BARREN eta Atxutxiamaikea proiektua martxan jarri genituenean batez ere, profesionalen kopuruak gora egin zuen, eta parte-hartze militanteak behera egin zuen. Gaur egun (2021), berriz, 10 profesionalak dihardugu egun osoko jardunarekin, eta horiei, Atxutxiamaiakako bi programatan lanean diharduten bost hezitzaileak eta hezitzaile-sareko 40 lagunak gehitu behar dizkiegu. Badaukagu 30-40 laguneko aktibista sare bat elkartean (konpromiso eta parte-hartze ezberdinekin), baina lan profesionalak jardun edo parte-hartze militanteak baino dezente pisu handiagoa dauka Elgoibarko Izarran. Orekatuagoa egon beharko luke, gure ustez, gizarte-mugimendu osasuntsu batean. Horri helduko diogu, hain zuzen ere, etorkizunari erreparatzen diogunean. Gogoeta egingo dugu Elgoibarko Izarrako bazkideen egitekoaren gainean.
2. **Hezitzaileak elkartera ekartzea:** Atxutxiamaiak hasiera-hasieratik eskaini zigun jende gaztea elkartera ekartzeko aukera, baina, zoritxarrez, ez dugu behar beste, eta behar bezala, aprobetxatu. Atxutxiamaiakan parte hartu duten hezitzaileak Elgoibarko Izarrara ere erakartzeko ahalegina egin behar genuen. Atxutxiko hezitzaile izatearekin batera, mugimenduko kide izateko lana, alegia. Lehen urteetan lortu genuen batzuekin, baina gerora behar beste zaindu ez dugun atala izan da. Kopuru zehatzik ez badakigu ere, 500 hezitzaile baino gehiago izan ditugu Atxutxiren bueltan azken 30 urteetan; horietatik zenbat sentitu dira Elgoibarko Izarrako parte? Zenbati azaldu diegu elkartea zer den? Zenbati egin diegu elkarteko parte izateko gonbita? Irudikatzen al duzue erdia bada ere elkartera erakarri izan bagenu zelako sarea sortuko genukeen? Eta jende gaztea gainera! Baina ez dugu halakori egin.
3. **Diskurtso propioa landu eta gizarteratzea:** elkartean gaudenon artean galdetuko bagenu zein den Elgoibarko Izarraren diskurtsoa, zer erantzungo genuke? Badauzkagu oinarri batzuk, aurretik aitatu dugun moduan (adostasuna, elkarlana eta aliantzak, euskara erdigunean, batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa delako, egiten duguna gara ...), eta horiek ondo daude, baina, beharbada, gehiago landu edota findu beharko genuke. Eta, batez ere, uste dugu elkartearen diskurtsoa behar baino gutxiago komunikatu eta jendarteratu dugula. Egon den diskurtsoa gehiago izan da barrurako, kanporako baino. Proiektuen bueltan egon da bakoitzari lotutako diskurtsoa, baina, gure ustez, elkarreak berak ere behar

du berea. “Elgoibarko Izarra euskararen alde egiteko dago” esatearekin ez da nahikoa. Hori baino gehiago zorroztu behar da ideia hori. Horrek zer esan nahi duen zehaztu behar da. Horretarako zer egingo dugun eta zer ez. Etorkizuneko Elgoibar zelakoa irudikatzen dugun. Elkartearen ametsa zein den. Hori dena landu eta komunikatu behar da, besteak beste, elkartean daudenak non dauden hobeto jakiteko eta ez daudenak elkartera erakartzeko.

4. **Komunikazio- eta transmisio-sistemarekin asmatzea:** *Atzera begira aurrera egiteko (1990-2010)* balorazio-lana egin genuenean, nahiko garbi ikusi genuen jendeak ez zuela elkartea behar beste ezagutzen. Jendeak ez zuela egiten genuenaren berri. Elkartearen hurbileko jendeak aitortzen zigun ez zekiela elkarreak hainbeste egi(te)n zuenik. Eta eskuartean daukagun lan honekin ere antzera pasa zaigu. Jendea harritu egin da elkarreak egin duena zerrenda batean ikusi duenean. Badirudi ez dugula asmatu garena eta egiten duguna behar bezala komunikatzen. Elkartearen izena askorentzat ezaguna da, bai, baina ez dakigu zer neurritan diren ezagunak elkarrea bera eta elkarreak egiten duena. Ezjakintasun horren atzean interes falta ere egon daiteke (jendeak, neurri batean, interesatzen zaionaren berri jasotzen du), baina gure ardura da informazioarekin eta komunikazioarekin asmatzea. Horrek, besteak beste, elkarreakiko interesa ere areagotuko luke.
5. **Ekonomikoki autonomoagoak izatea:** jardun dugu diru propioen iturria ahal dugun gehien zabaltzen; saiatu gara zerbitzuak prestatu eta eskaintzen, baina, egia aitortu behar badugu, azken 30 urteotan erakunde publikoen diru-laguntzen mende egon gara beti. Eta, batez ere, Udalaren diru-laguntzen mende. 2010ean, adibidez, gure aurrekontuaren % 47 diru-laguntza publikoetatik jasotakoarekin estali genuen. 10 urte geroago, berriz, 2021ean, % 61 ingurukoa da diru-laguntza publikoaren pisua. Diru-laguntza publikoekiko daukagun mendekotasun ekonomikoa gero eta handiagoa da. Udalak gure aurrekontuaren % 30-35 estaltzen du. Kontu honi ere etorkizunari lotutako atalean helduko diogu berriz ere.

Denon artean erantzuteko galdera: Elgoibarko Izarrak azken 30 urteetan egin duen lana eta lan horrek emandako emaitzak bat datoz? Oreakatuta ikusten dituzu egindakoa eta lortutakoa?

6.- LABURPEN MODURA:

ATZERA BEGIRA:

- Zer egin dugu azken 30 urteotan?Elkarte moduan egin eta eragin nahi genuela erabaki, Elgoibarko Izarra berregituratu eta berrantolatu, eta lan-dinamika berria martxan jarri.
- Landu ditugun jardunbideak:
 - Erabilera lantzeko 24 proiektu eta programa ezberdin.
 - Motibazioa edo kontzientzia lantzeko 18 ekimen.
 - Jakintza eta formazio lantzeko 8.
 - Nazio ikuspegia lantzeko beste 8.
 - Identitatea lantzeko 6 ekimen.
 - Gure aurrekoak ez ahazteko beste 6 ekimen.
 - Biltze- eta balorazio-lanak egiteko 4 lan.
 - Zerbitzugintzari lotutako 20 zerbitzu-lan.

Zer lortu dugu?

- Elkartea ez desagertzea eta berrantolatzea.
- Euskalgintzan jarduteko diskurtso eta estilo berria martxan jartzea.
- Erabileraren garrantzia azpimarratzea.
- Herri mailako funtzio eta sektoretan eragitea.
- Jakintza eta formazioa zabaltzea herritarren artean.
- Gure aurrekoak gogora ekartzea (edo ez ahaztea).
- Euskalgintzako erreferente izatea, herrian eta herritik kanpo.
- Autonomia gradu on bat izan eta dezenteko garapena lortzea.

Zer ez dugu lortu?

- Lan profesionala eta militantea orekatzea.
- Euskararen erabilera nahi beste areagotzea.
- Hezitzaileak elkartera erakartzea.
- Komunikazioarekin eta diskurtsoarekin asmatzea.

Gogoetarako galdera: Egindako lanak eman ditu espero genituen fruituak?

7. ELGOIBARKO IZARRAREN GAINEAN ESANDAKOAK:

Dokumentuaren amaierara heltzen ari gara. Atal honetan Elgoibarko Izarraren gaineko berbak jasoko ditugu. Jendeak Elgoibarko Izarraren gainean esandakoa.

- *“Elkarteak egindako lana aitortu eta goraiatu nahi dut. Egiten duena kalitatez eta ondo egiteko ahalegina egiten du, eta hori asko baloratzen dut. Elkarteak hurbila da, kalitatezkoa eta berritzailea”.*
- *“ELGOIBARKO IZARRA existitu izan ez balitz imajinatze hutsak, egindako lanaren emaitzak nolako dimentsioa duen konturatzeraz eraman behar gaitu. Dena neurtu nahi den mundu honetan, neurtu ezina da elkarteak egindako lana; dakigun bakarra da handia izan dela. Euskararen egoera Elgoibarren hobea dela elkarteari esker. Horretan denok ados izango gara”.*
- *“Zenbat gauza egin eta egiten dituen elkarteak! Askok, benetan! 2006tik bizi naiz Elgoibarren, baina gauza askoren berri ez neukan. Beharbada, ez dugu informazioarekin eta komunikazioarekin asmatzen. Adibidez, zenbat jendeak lotzen du BARREN edota Atxutxiamaiak Elgoibarko Izarrarekin?”*
- *“Elgoibarko Izarraren lana txalotu nahi dut. Izugarria da 60 urtean egin duena. Egoera dena delakoa ere, ezin dugu zalantzan jarri Elgoibarko Izarrak egindako lana”.*
- *“Elgoibarko Izarrak egin duena balioan jarri behar da, eta aurrera begira, elkarlana sustatu, euskararen prestigioa landu eta egiteko moduak modernizatu behar dira”.*
- *“Niretzat zorte eta ohore handia da Elgoibarko Izarrako bazkide izatea. Oso gustura hartu dut parte elkartearen hainbat ekintza eta jardueratan; izan ere, beti izan dira oso ondo hausnartu eta antolatutako jarduerak. Oso ondo sentitu izan naiz elkartearen, bazkideen artean, eta uste dut baduela indarra eta argitasuna Elgoibarren euskararen erabileraren alde lanean jarraitzeko”.*
- *“Oso interesgarria iruditu zait egindakoaren eta lortu ez denaren errebasoa, baita Aurrera begirakoa ere. Ez da makala izan elkarteak egindako ibilbidea. Horregatik, uste dut ez garela hutsetik abiatzen, txostenean “egiteko” aipatzen diren eginkizun batzuk lehenago ere landu izan ditugulako, “diskurtsoa, komunikazioa, bazkideak... baina horiek guztiak eguneratzea komeni dela uste dut, bazkideengana eta herritarrengana gehiago hurbildu eta garai berrietara egokitzeko”.*
- *“Elgoibarko Izarra gabe Elgoibar ez litzateke “hain herri euskalduna” izango. Elgoibartarrok Elgoibarko Izarra behar dugu (konturatzen ez bagara ere), euskaraz bizitzeko bidean aurrera egiteko”.*
- *“Harrituta geratu naiz! Zenbat gauza egin dituen Elgoibarko Izarrak! Ez nekien hainbeste egiten zuenik! Gauza batzuk bai, baina beste askoren berri ez nuen. Txapela kentzeko moduko lana egin du (egiten ari da) Elgoibarko Izarra. Oso argi daukat Elgoibar bestelako herria izango litzatekeela Elgoibarko Izarra 1963an sortu izan ez balute; oso bestelakoa”.*

- *“Lehenengo esango nuke, ahal bada, uzteko bere bidea egiten bai Barreni eta baita Atxutxiamakari ere. Elgoibarko Izarrak euskara bultzatzea nahi badu, denbora eta errekurtsioak euskararen erabileran jarri behar ditu: sareak sortu, euskaren aldeko konpromezu sareak sortu, bai herri mailan eta baita eskualde mailan ere. Denbora berrietara egokitu behar ditugu euskararen erabilera sustatzeko estrategiak: sare sozialetan indartuz, adibidez”.*
- *“Nire partetik, batetik zoriondu Elgoibarko Izarra egindako lanagatik. Nik uste urte luze hauetan lan asko egin dela, zoritxarrez gehienetan bistaratzen ez dena, baina egindako esfortzuak aletxo bat baino gehiago hazteko balio izan duela. Nire ustetan, Elgoibarko Izarra, hainbat eta hainbat lekutara iristeko ezinbesteko eragilea izan da eta elkartearen helburu, norabide eta jardunaren inguruan etengabe hausnarketan aritu dela, eta horrek, krisiak-krisi, elkartea bizirik eta osasuntsu mantendu du”.*
- *“Nik ere mahai gainean jarriko nuke BARREN eta Atxutxiamaika elkartetik soltatzeko aukera. Uste dut Elgoibarko Izarrari pisua kendu behar diogula lan berrietan hasteko. Ganbara hustu behar dugu proiektu berriei kabida egiteko. Elkartea arindu behar da ekimen berriei heltzeko. Elgoibarko Izarrak ekimen berriak sortu behar ditu jendea erakarri nahi badugu. Ilusioa gauza berriek sortzen dute. Berriak eta erakargarriak. Zer behar dugu? Zer nahi dugu? Jendeak nahi eta behar duguna euskaraz sortzea izan daiteke gakoetako bat, erdaraz dagoena euskaratzen jardun beharrean. Sormenaren errotari gehiago eragin behar diogu”.*
- *“Iruditzen zait txapela kentzeko lana egin duela Elgoibarko Izarrak urte hauetan guztietan eta egindako guztia izan dela ona. Egin den guztia marko teoriko baten barruan egin dela iruditzen zait eta nik ez daukat dudarik zegokiguna egin dugula. “Uste dut beste egiteko bat bazegoela”, dator txostenean. Genekigunarekin egin zitekeen onena egin dugu eta horrek eman dio Elgoibarko Izarrari gaur duen erreferentzialtasuna ere. Hobetzeko tartea beti dago, jakina, baina esker onetik idatzi nahi nuke. Euskaigintzan dihardugunon artean desmoralizazio zantzu garbiak igartzen dira (neurengandik hasita), bistan delako egin dugunak ez duela guk nahi adinako eraginik/emaitzarik izan”.*
- *Uste dut egin duguna, oro har, ondo egin dugula. Hobeto egin daiteke? Bai, baina nahikotasun mailaren gainetik jardun dugula uste dut. Etorkizunari dagokionez, azpimarra hauek egingo nituzke:*

Euskararen erabilera areagotzean zentratu behar gara, batez ere, eta horretarako, besteak beste, bide hauek ikusten ditut:

- Euskalgintzaren artikulazioa ezinbestekoa ikusten dut.
- Diskurtso landuak ere ez digu kalterik egingo.
- Kulturgintza euskaltasuna indartzeko estrategia moduan ikusten dut, baina kultur eskaintza publiko orokorarentzat izan behar duela uste dut, eta ez hainbeste gure betiko publikoarentzat. Orokorarentzat baino, zer lortu nahi dugun eta nor erakarri nahi dugun pentsatu behar dugu aurrez eta ondoren zer eskaini.
- Gure proiektuak (Atxutxiamaiak eta BARREN, Kulturgintza, "GB"... proiektuak), nire ustez, gehiago baliatu beharko genituzke herritarren euskaltasuna sustatzeko. Notiziak euskaraz irakurtzea edota aisialdia euskaraz jasotzea ez da nahikoa jendearen euskaltasunean eragiteko.
- Programak, ekimenak edo ekintzak antolatzen ditugunean ondo definitu behar dugu, nire ustez, non eragin nahi dugun. Kontuz "denentzako" diren programekin. Haurren aurrean ekimenak, adibidez, ondo definitu du non eragin nahi duen. Ekimen guztiekin jokatu beharko genuke berdin.

8.- AZKEN KOMENTARIOAK:

Dokumentua irakurri ondoren jendeak librean egin dituen komentarioekin emango diogu amaiera lan honi.

- “Ondo dago dokumentuak idaztea, erabakiak hartzea, baina hori ez da nahikoa. Erabakitzen dena betetzeko bideak ezarri behar dira, baliabideak jarri. Eta gero segimendua egin. Hori gabe beste guztia alferrik da”.
- “Erabakitzen duguna erabakitzen dugula, erabaki dugun hori martxan jarri eta gauzatzeko arduradunak eta baliabideak zehaztu behar dira”.
- “Dokumentu honetan datorrena bazkideen esku laga behar da. Bazkideek jakin egin behar dute dokumentuak dakarrena. Eta herritarrek ere bai. Zuek baloratu zelan, baina garrantzitsua da dokumentuan jasotakoa jendarteratzea”.
- “Herrigintzan dihardugunon helburua ezin da izan denok berdin pentsatzea. Ezberdin pentsatzeko lizentzia eman behar diogu elkarri, baina batera egin behar dugu gure hizkuntzaren alde”.
- “1990ean egin zen antzera, Elgoibarko egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa-lana egin beharko litzateke berriz ere. Denbora gehiegi pasa da ordukoarekin ibiltzeko”.
- “Badakit lan-prozesua etenda dagoela, baina ‘Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren egoeraren DIAGNOSIA Liburu Zuria’ n egindako lana ezin dugu bazterrera laga. Garrantzitsuena identifikatu eta han esaten dena lantzen hasi behar dugu”.
- “Etorkizunari lotutako erabakiak hartzeko une egokian gaudela uste dut. 60. urteurrena baliatu behar dugu erabaki estrategikoak hartzeko. Ondo pentsatuta, baina erabakiak hartu egin behar dira. Ausardiarekin”.
- “60. urteurrena aitzakia hartuta, horrelako gogoeta-prozesu bat zabaltzea oso garrantzitsua dela uste dut. Egin denaren gaineko kontzientzia izateko. Lortu denaz eta egin behar dugunaz hausnartzea behar-beharrezkoa dela uste dut; ezinbestekoa, elkartea biziberritzeko eta berrindartzeko”.
- “Azken urteetan hainbat aldaketa nabaritu ditut herrian:

Positiboak: Euskarak erabilera formaletan eta baita hainbat kultur ekitalditan ere presentzia irabazi du: ez da arraroa musika-kontzertu bat edo bestelako ekitaldiren batean euskarak presentzia handia izatea. Bestalde, euskarak irabazi ditu hainbat funtzio: gazteen aisialdia, herri-aldizkaria, merkataritza, elkarreak, lantegiak ... Elgoibarren, batez ere, lan handia egin dela uste dut.

Negatiboak: Euskara nik nahi baino gutxiago entzuten dut inguruan: helduen artean, gazteen artean, dendetako iragarki eta paneletan... Covid-a, krisi ekonomikoa, aldaketa klimatikoa, sexu-jazarpena ..., hainbat kezka eta buruhauste ditugu. Hori dela eta, euskara bigarren mailara pasatu da herritarren kezken artean”.

- “Etorkizunari begira, euskaldunok erresistentziara kondenatuta gaudela uste dut. Ez daukagu besterik: egin eta eutsi, egin eta eutsi ...”.
- “Beharrezkoa da euskara elkarteen lana, baina gauza bat izan behar duzue kontuan, balorazio-lanak egiten dituzuen bakoitzean fustrazioaren zuloan ez jausteko: herrietan egiten den lanaren erdia alferrik galtzen da nazio mailako funtzioak euskarak/euskaraz betetzen ez direlako.

Behetik gorakoa da herrigintza, bai, baina goitik beherakoa ere izan behar du. Goikoak behekoari lagundu egin behar dio, bestela behetik egiten den lanaren erdia ez da aprobetxatzen.

Beraz, nire ustez, nazio mailako euskalgintza artikulatzen ez den bitartean, euskara elkarteen lana oso baldintzatuta egongo da.

Beraz, euskara elkarteek bakoitza bere herrian egin eta eragin behar du batez ere, baina badagokie nazio mailako funtzioak irabazteko ahaleaginean jardutea ere. Topaguneari esatea, hor eragiteko.

Euskararen botila erdi hutsik edo erdi beteta dagoen eztabaidatzen jarduten dugu sarritan. Kontua ez da botila noraino beteta dagoen edota ez dagoen; kontua da botila zulatuta dagoela, eta alde batetik sartzen dena bestetik irteten da. Zuloak edo pitzadurak konpontzen ez ditugun bitartean, ez dugu sekula botila beteko. Pitzadurak konpontzea da gakoa”.

- “Herrietako plaza hartzea sare sozialetan euskaraz egitea baino garrantzitsuagoa izan daiteke. Erderak ematen ez duena eman behar dugu euskaraz. Kontua ez da hainbeste erdaraz dagoena euskaraz ere egotea; erderaz ez dagoena euskaraz eskaintzea baizik”.
- “Elgoibartarrok, 1963an lehenengo eta 1990ean gero, egiteko eta izateko borondatea erakutsi zenuten. Hori da eman beharreko lehen urratsa. Eta argi izan zenuten Elgoibar herri euskaldunagoa izateko ardura ez zenutela inoren eskuetan lagako; zuek egingo zenutela zuen esku zegoena. Eta egin duzue! Zenbat egin ere! Eta, oro har, ondo egin duzuela esango nuke. Hobeto egin daiteke? Bai, egin daiteke.

Eta aurrerantzean zer?

- Egokitu elkartearen egitura eta antolamendua gara berrietara.
- Sortu zuen diskurtso propioa (eta osatu/jantzi Topagunearenarekin).
- Elgoibarko Izarraren ametsa zein den definitu.
- Talde edo komunitate izaera (pertenentzia) landu:
 - Lika-lanak egiteko liturgiak sortu, errituak, bat egiteko eta batera egiteko une eta guneak. Lilura elkartzeko, lilura gusturago egoteko, lilura komunitate bateko parte sentitzeko.
 - Emozioak landu eta lilura berreskuratu (kulturgintzaren bidez, adibidez).
- Norbanako eta talde modura ahaldundu behar duzue elgoibartarrok, eta, horretarako, ahalduntze-eskolaren ideia jarri nahiko nizueke mahai gainean.

Badakit egiten duzuela zerbait (Euskara ala Ezkara zikloa, adibidez), baina nik gauza sendoagoa eta iraunkorragoa egiteko proposamena egin nahi dizuet”.

- “Euskara elkarteek lana beharrezkoa da, baina euskararen normalizazioak plan orokorrak behar ditu. Elgoibarko plan orokorra, gure kasuan. Elgoibarren euskararen erabilera hobeto nahi badugu, denok norabide batean lan egitea eskatzen du: eskolak, euskaltegiak, lan-mundua, udala, Elgoibarko Izarra ... Honek herri-plangintza bat eskatzen du: sistematizazio bat, helburu batzuk, jarraipena, sozializatzeko bide sendoan ...”.
- “Kontzientzia, euskal identitatea landu beharra daukagu nagusi eta gazteen artean, eremu euskaldunetan eta ez euskaldunetan. Egiten dugu, eta horretan denbora asko inbertitzen dugu, baina bistan da ez dugula behar beste eragiten. Hau ez da elkarte baten esku bakarrik egon behar den auzia, bakarrik ezin da ezer lortu, agente desberdinen batura izan beharko luke, interes amankomuna dugu guztiok: euskara. Iraultza txiki bat amestu nahi nuke, eragile desberdinek bat eginda, euskararekiko errespetua zabaltzeko formula zabaltzea *vasco* guztien buruetan, baina hori egiteko formula asmatu ezinik gabiltza”.
- “Dokumentuan irakurri dudanez, 1990ean egin zen Elgoibarren euskarak eta euskaldunok gure herrian bizi dugun egoeraren azken azterketa soziolinguistikoa sakona. Uste dut badagokigula herri moduan beste bat egitea. 30 urtean asko aldatu da egoera, eta komeni zaigu egungo egoeraren diagnostia egitea”.
- “Dokumentua irakurri ondoren, argi dago luze hitz egin eta eztabaidatzeko premia daukagula herrian: komunitatea trinkotzeko, euskararen erabilera areagotzeko, izateko nahia elikatzeke, pentsamendu eta diskurtsoa lantzeko.... Oso proposamen txukuna dela iruditzen zait, oso hausnartua”.
- “Gure egitekoetan, bereiztu egin behar dugu noiz den sustapena eta noiz zerbitzugintza. Gure egitekoa ez da zerbitzugintza, sustapena baino. Zerbitzugintza egin behar badugu (diru propioen iturria zabaltzeko, besteak beste) zerbitzu batek eskatzen duen baldintzetan jardun behar dugula uste dut, zerbitzu horren diru-balioa guk jarrita”.
- “Kontuz hau bezalako gogoeta-saioekin! Uste dut denbora gehiegi pasatzen dugula pentsatzen edota hausnartzen. Ondo dago pentsatzea edo hausnartzea, baina ez dadila horretan geratu. Horrelako hausnarketek ondorioak izan behar dituzte, igarri egin behar da. Bestela jendea aspertu eta nekatu egiten da”.
- “Pandemian gaudenetik irudi orokorra eta sententzioak dira euskarak atzera egin duela. Besteak beste, hori sumatzen da kaleko erabileran, komunikabideetan, instituzioen berbaldietan eta kanpora begirako mezuetan. Eta hori kezagarria dela uste dut. Baina bueno, lehendik zetorren zerbaiten segida dela uste dut; ez dago ildo baten etenik; COVIDak egoera azkartu baino ez du egin. Beraz, uste dut garrantzitsua dela euskararen inguruan eztabaidak sortu eta denok norabide berean jartzea”.

- “Ni erabilerak kezkatzen nau bereziki. Zer egin dezakegu euskararen erabilerak gora egiteko? Gazteen kasuan, adibidez, erreferentzia nagusiak sarean daude: youtuberrak, instagram sarea, sareko jolasak ... Zergatik ez hori euskaraz? Egon behar al dugu haiekin, egiten dutena euskaraz egin dezaten?”
- ...